

ARRU

*Nire izatea korapilo bat da
iluna eta gogorra
nire burmuina armiarma sarea josiz doa
labirinto honetan bizi naiz*

(Keike. “Ni, korapiloa”.
Beldurra mina argia. 2006)

ANDER Arruti Suarez. Arruti. *Arru*. Nire nortasun-agiriak dio Eibarren jaio nintzela, baina Arrasaten jaio nintzen, amari haurdunaldia azken txanpan okertu eta bertako ospitalean ingresatu behar izan zutelako nitaz erditu baino astebete lehenago. Espainola naizela ez da, bada, nortasun-agiri aldrebes horrek dioen gezur bakarra.

1980ko abenduaren 31n munduratu nintzen zesarea bidez. Seme bakarra izango nintzen, betiko. Penaltiz sortu izanagatik, amak lehen aldiz beso artean hartu ninduenean, ez berak eta ez ondoan dardaraz begira geneukan aitak ere, ez zuten «gooooooooo!» oihukatu, «oooo» beldurti bat murmurikatu baizik. Hirurok hain ginen hauskor eta txikiak inposatzen zen bizitza haren erdian! Haiek hemezortzi urte bete gabe zituzten, eta nik, hezur-haragi bihurtutako ezbehar

hark, jaio eta bizitzera behartuta, negar besterik ez nuen egiten, zergatik jakin gabe, ezintasunez.

Nire memorian, lehen urte haietako oroitzapenik ez dut gordetzen; ez zitzaizkidan sekula errotu, edo beharbada azken urteotan ezabatu zaizkit, eta, iragan urruna berreraikitzeke gaitasuna agortuta, ez naiz berriak asmatzeko gai izan. Sei urte nitueneko egun sargori batekoa da daukadan umetako oroitzapenik zaharrena: aita eta biok Debako hondartzara bidean goaz R6 gorrian, autoko bozgorailuek Hertzainak taldearen kaseteko abestiak zabaltzen dituzte ozenki, bolumen ezin altuagoan, eta kopilotuaren eserlekutik, birika betean abesten doan aitari begiratzen diot harro-harro. Aitaren ahotsak eta Garirenak bat egiten dute niri zuzendurik dirudien leloa jaurtiz: «E, txo, gehiegi itxoiten duk». Hazteko gehiegi itxoiten ari ote naiz? Dagoeneko ez naizela ume txikia pentsatzen dut, eta ni ere noizbait aita bezalakoa izango naizela.

Gurasoen hainbat lagun heroinak eta hiesak eraman zituzten arren, aparteko traumarik gabeko haurtzaroa bizi izan nuen, eta ikastolako bigarren mailan klaseko gainerako haurrek mendi, baserri edota animalien marrazki zozzoak egiten zituzten bitartean, nik irudi bera marrazten nuen beti, era errepikakorrean: herriko kale aldapatsu hits bat zuri-beltzean, eta haren ezkerreko muturrean koloretako atari bat, musika-nota koloretsuak barreiatzen zituenak kalean beheara. Ilgora taberna zen: nire buruan, «rockaren taberna». Haurtzaro iheskor hartako arratsalde asko iragan nituen gurasoekin bertan, eta, ordu luze haietan, entzunaren entzunaz, *Euskal Rock Erradikal* guztia barneraino sartu zitzaidan.

Nerabezaroko soinu-banda Eskorbuto izan nuen; jarre-
ra, berriz, errebeldia. Institutuan piper egiten zutenetakoa
nintzen, jolas-orduan petak erretzen ibiltzen zirenetakoa,
arratsaldeak kalean ematen zituztenetakoa, gustuko kon-
zertu guztietara joateko baimena lortu eta etxera buel-
tatzeko ordurik ez zutenetakoa. Eta azkarra nintzenez,
zientzietarako bereziki, ozta-ozta baina ia esfortzurik gabe
gainditzen nituen asignatura gehienak, eta urtero lortzen
nuen hurrengo mailara igarotzea.

Institutuarekikoak eginda, Donostiara jo nuen infor-
matika ikastera, eta asteburuetan herrira bueltatzen nin-
tzen, Ilgora tabernako barra atzean zerbitzari-lanetan aritu
eta sos batzuk irabazteko. Hogeita bi urterekin ez nintzen
jada nerabezaroko punkiuste mukizu hura, ezpada gazte
jator eta irekia: ikaskide estimatua unian, kamarero ezagu-
na herrian, eta pertsona erakargarria edonon eta edonoren
begietara. Harropuzkeria irudi dezake nik esanda, baina
halakoxea nintzen. Talentua, arrakasta, zori ona, kementa,
hedonismoa, eskuzabaltasuna, baikortasuna, maitasuna,
askatasuna... tasun horiek guztiak eta gehiago nintzen.

Filosofia, matematikak eta esoterismoa nituen gogoko.
Eta sexua, batez ere sexua; ororen gainetik, taburik gabe-
ko sexu goxoa. Neska-laguna banuen garai hartan: Ane.
Baina hari leialtasuna gordetzeko sekulako arazoak nituen.
Sexua aski ez eta, anfetamina, kokaina eta extasi-pilulak
ere ohikoak ziren nire asteburuetako goizaldeko menuan.
Drogekin esperimentatzeko egarriz nengoen beti, muga-
raino esperimentatu ere. Mugan beti, baina beti irabazle.

Hogeita lau urte egin berri nituela, bizitza ezegon-
kortzen hasi zitzaidan, ordea. Porrot eta gorabehera ustez

hutsalak pilatu zitzaizkidan ikasketetan, tabernako lanean, neska-lagunarekin eta gurasoekin; droga-mendekotasuna ageriko egin eta arazo bihurtu zitzaidan, eta depresio zorrotz batek irentsi ninduen. Beheraldi hura izango zen nire gainbeheraren hasiera. Hondorik ez zuela zirudien leize-zuloan behera amildu nintzen, gertatzen ari zitzaidana ulertu ezinik. Gero eta abiadura handiagoan bata besteari kateatu zitzaizkion galera, ezin ulertuzko gertaera eta ezusteko bortitzak pairatu nituen. Arrapaladan etorri ziren denbora azkartu eta trinkotzea eta errealitatearekiko haustura. Lehen agerraldi psikotikoa izan nuen. Donostiako ospitaleko psikiatria-unitatean egon nintzen hilabetez. Hor amaitu zen nire lehen bizitza. Hor hasi zen **hutsartea**:

(

).

**Hutsartean pasatu ziren droga-mendekotasuna ar-
tatzeko *Proyecto Hombre* programako bi urteak** (anti-
depresiboak, tenteltzea, diziiplina, depresioa, talde-terapia,
umetzea, programakideen konplizitatea, komunak garbi-
tzea, hiru etapako prozesua Hernaniko zentroan, Eibar-
Hernani-Eibar bidaiak, gurasoak ondo-ondoan izatea, lagu-
nen babesa, hobera egitea, indartsu sentitzea); **hutsartean,
hilabete batzuk iraun zituen normaltasun-antzeko ga-
raia** (aurreko bizitzara bueltatzeko saiakera, karrera amai-
tzeko ahalegina, tailer bateko errelebokako lana, Donostiara
bizitzera bueltatzea, taberna-zuloak); **hutsartean, amilde-
gia eta eromenaren ezerezerako jauzia** (zenbait agerral-
di psikotiko eta ospitaleratze, diagnostikoa: eskizofrenia,
errealitate ulertezin aldrebesa: kauxtahem-aztoireh, aoizaki-
radam, kaebagiana uag-arutrot, aotorrogotua, aeztizib atix-
ti nalegol, auzi iracettri arelak, arrudleb iraednej, kaionarap,
atleub arexte neosarug); eta, **hutsartean, psikiatrikoko
urte eta erdia** (bortxa, errepresioa, giro etsaia, antsioliti-
koak, debeku guztizko eta erabatekoak, lerdea dariola zonbi

gisa harat-honako ibilerak, hesi erraldoiz inguratutako patio ñimiñoa, denboraren ibiliaren geldotasuna, zigarretak eten barik era konpulsiboan erretzea hautsontziak bete eta erlojuak hustu arte, kafea, pizgarriak, berriz ere anfetamina, lagunen bisitarik eza, anai-arrebak bezalako barruko lagun berriak, asteburu osteko pixa-kontrolak, positibo jarraituak, irten ezina).

Orain, alderrai doan hautsitako bizitza da nirea, eta ezinbestean, kraskatutako biografia dut, arrakalatua eta pitzaduraz betea. Behin, hogeita lau urte iraun zidan bizitza oparoa bizi izan nuen; gero, zortzi urteko hutsarte etorri zen. Bigarren bizitzari ekin diot berriki, hogeita hamahiru urterekin.

Ez dut uste ezeren damu izateak zentzurik duenik honezkero, batez ere, hutsarteak hutsarte, bizitza baten ostean, heriotzaren orde, bigarren bizitza bat etorri zaidanean opari. Ezbeharrean zorioneko izan naizela esan behar dut; horixe errepikatzen diot neure buruari poztasun-puntu eta irribarre antzeko batekin egun baikorretan. Egun ezkorretan, aldiz, bizitzen ari naizen bigarren bizitza hau opari pozoitua iruditzen zait, eta, asko jota, «zertarako bizi» petral eta beltz bat isurtzen zait hortz artetik, munduarekiko eta neure buruarekiko destainaz gainezka. Egun petratelan oro da nire sufrikariozko iraganaren, orainaren eta balizko etorkizunaren erantzule: mundua, sistema, kapitalismoa, estatua, Eliza Katolikoa, *Proyecto Hombre*, gizarte, hezkuntza publikoa, Osakidetza, Aita Menni psikiatrikoa, Ilgora taberna, punka, rocka, Ane, kuadrilla, aienaturiko lagunak, oraindik hor daudenak, aita, ama, ni eta zu, zarena zarela. Egun horietan, aurrean harrapatzen dudana edonor

jo eta txikituko nuke, ezintasunak eta herrak gaiztotuta, gaixotasunak aldartea aldrebestu didala konturatzen naizen arte. Orduan, apur bat lasaitzen naiz, eta neure buruari egozten diot nire egoeraren eta egonezaren erru guztia, besteoi batere ez.

Barruan orbaina utzi dit gaixotasunak, noizean behin zabaldu eta zornatzen zaidan zauria. Zauri bikoitza. Aho biko aiztoa. *Patologia duala* du izena nire kondena. Askok eta askok pairatzen dugun gaitza da, baina, kuriosoki, buruko gaixotasunen diagnostikorako eskuliburuek ez dute haren berri ematen oraindik. Niri oso sinplea eta ulerterraza iruditzen zait, ordea, eta modu bat baino gehiagotan azal nezake kontua, inozoenak ere ulertzeko eran: 1.- «Kaixo, Ander naiz. Eskizofrenia dut eta anfetaminarekiko adikzioa». Ulertu duzu? Ez? Ea ba, sinpleago esanda: 2.- «Ander naiz, buruko gaixotasuna dut eta toxikomanoa naiz». Horrela ere ez? Tira, are sinpleago: 3.- «Ander, eroa eta jonkia». Horrela bai, ezta? Oso ondo! Ezabatu, baina, irribarre inozo hori zure ezpainetatik, atoan!

Gaixorik nago, bai, baina ez naiz horratik inuzente gizajo bat. Gurpil zoro batean harrapatuta nago, besterik ez. Eskizofrenia zenbat eta gehiago gaiztotu, orduan eta anfetamina gehiago kontsumitu behar dut, eta zenbat eta anfetamina gehiago kontsumitu, orduan eta eskizofrenikoagoa naiz. Horra bizi dudan paradoxa. Eromenak iruzur egiten dit. Zitalkeriaz mintzo zaizkidan ahotsak pizten dizkit, lokietan matxinatu eta burua mailukatzen didatenak gorrotozko mezu suntsikorrekin, kontraesankorrekin, edota inozo eta agerikoekin: «Haitza zara, eta haritza, larrea, hondartza, natura zara, eta antinatura: asfaltoa, adreilua,

antipsikotikoak, lasaigarriak, zigarretak. Ez zara zinena. Une honetan kaosa zara, porrota, bekaizkeria, inbidia, indarkeria, zoritxarra, ezintasuna. Orain kontraesanez beteriko pertsona konplexua zara, gaixotu aurretik izan zinena eta gaur egun zarena nahasten dituzu zure baitan, iragana onartu eta oraina ulertu eta bizitzeko borrokan kateatuta zaude, biziraute hutsean. Irabazle eta galtzaile zara aldi berean, zure buruaren biktima eta borreroa». Ahotsek nahi dutenean hitz egiten didate, baina haiei jaramonik ez egiten ikasi dut, eta nahi dutenean hitz egiten didaten moduan egiten diet nik haien esanei entzungor, nahi dudanean. Ixo! Utikan! Ahaztu ezin ditudan oroitzapenei, aldiz, ezin diet ez entzunarena egin, eta maiz bahitzen didate gogoa.

Badakit iragana gogoratzeak ez didala ezer onik ekartzten, baina ezin dut saihestu. Bizikizun franko ezin ditut ahaztu, eta buruan hausnarrean ibiltzen ditut, nahastu eta nahastu, errepika etengabea eta anabasa itsuan, harik eta pentsamenduak uhertu eta belzten zaizkidan arte. Ezin dut ahaztu, esate batera, lehen bizitza hura azkeneraino zukutu nuela eta egarri asegaitzez edan nuela bertatik, azken tantetan azalaren mikatza dastatu arte. Eta, niri bezala, barrenak erre badizkizu, ez dago bizitzaren garratza ahazterik. Nik behintzat ezin dut.

Nahita ere, ezin dut ahaztu, lehen agerraldi psikotiko hura izan eta berehala, oraindik depresioak jota nengoeanean, osatzeko lasaitasuna eta ingurukoen babesa besterik behar ez nuenean, nola droga-mendekotasuna tratatzeko zentro batean ingresatu ninduten bi urterako. Ezin dut ahaztu, handik irten ostean berriz gaixotu nintzenean, norbaitek entzun ziezadan gehien behar nuenean nola arbuia